



PRENTSA OHARRA: 2024.12.20

## Etxepare Euskal Institutuak hogeit bat ekintza garatu ditu 2023 eta 2024an Espainiako Kultura Ministerioaren laguntzarekin

### - Institutuak dirulaguntza izenduna jaso du euskara eta euskal sorkuntza garaikidea atzerrian zabaltzen laguntzeko

2023. eta 2024. urteetan, Etxepare Euskal Institutuak 100.000 euroko dirulaguntza bana jaso du Espainiako Gobernuako Kultura Ministerioaren eskutik. Dirulaguntza horiek Institutuak euskara eta euskal sorkuntza zabaltzeko hainbat ekintza finantzatzen lagundu dute.

Horri esker, Institutuak bere lankidetzak kultural eta artistikoa indartu ahal izan du, bereziki, azken urteotan harremana estutu duen Europako eta Latinoamerikako hainbat lurralderekin.

Horrela, Etxepare Euskal Institutua Kolonbiako Cundinamarca eskualdearekin garatzen ari den lankidetzaren esparruan, Bogotako Antzoki Nagusian egindako programazioa indartu eta sendotu ahal izan da. Azken bi urteetan Tanttaka, Kukai, Led Silhouette eta Alos Quartet konpainiek jardun dute bertan. Bogotako Zinematekak ere euskal zinemari eskainitako ziklo bana hartu du. Eta Bime Bogota azokak, Latinoamerikako musika industriaren topaketarik handienetarikoak, hainbat jarduera profesional eta euskal artisten showcase-ak hartu ditu. Aipatzekoa da, halaber, Amets Arzallus bertsolari eta idazleak Cartagena hiriko Hay Festival jaialdian parte hartu zuela iaz.



Mexikon, Institutuak azken urteotan egindako lanaren ildotik, euskarazko egileen presentzia bultzatu da Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azokan, eta nabarmen Espainia ohorezko gonbidatu izan duen 2024ko edizioan.

Argentinan jarraipena eman zaio EAS-EZE ikerketa eta ekoizpen artistikoko programari, Bitamine Faktoria eta Muntref-ekin (Museos de la Universidad Nacional de Tres de Febrero) elkarlanean garatua. Txilen, berriz, Viña del Mar-eko Nazioarteko Zinema Jaialdian euskal zinemaren leioa bultzatu da, eta euskal konpainiek Teatro a Mil jaialdian parte hartu dute, Santiagon.

Kanadan, eta bereziki Quebecen, lehentasunezko lurraldea, Elbria Zipitria Katedra egonkortu da, Montrealgo McGill Unibertsitatean, kultura-berrikuntzara bideratua. Era berean, Amaia Elizaran eta Igor Calonge artista egoiliarak hartu ditu Montrealgo École de Danse Contemporaine zentroak. Karmele Jaio idazlea Toronto Festival of Authors jaialdian izan zen 2023an, eta Xabi Aburruzaga musikariak bira egin zuen herrialdean barna.

Bestalde, Flandria – Euskadi aldeko lankidetzak kultural eta artistikorako programaren esparruan, biltzar akademiko bat antolatu zen urrian Leuven-en, bi lurraldeen arteko lotura sakona artean bidez aztertzeko.

Era berean, jarraipena eman zaio Finlandiako Basking Beat & Bite jaialdiari eta Eskoziako Dance Base dantza-zentroarekin lankidetzan aritu da Institutua Edinburgh Festival Fringe jaialdiaren esparruan. Azkenik, aipatzekoa da Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum artisten parte-hartzea Sydneyko Biurtekoan.

## **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du




**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

#### **Info +**

Komunikazioa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)



Tabakalera  
Andre Zigarrogileen plaza, 1,  
20012 Donostia / San Sebastián

+34 943 023 400  
[etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus)

**Euskara. Kultura. Mundura.**